



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## **EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA**

### **LEA/AVC 270-NORM-2018 ESPEDIENTEA**

#### **Aurkibidea:**

I. TXOSTENAREN XEDEA ETA LEA/AVC-REN ESKUMENA.....	1
II. EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEAREN AURREPROIEKTUA.....	1
III. LEHIARI BURUZKO GOGOETAK.....	2
IV. GOMENDIOA.....	4

#### **Osoko bilkura:**

Alba Urresola Clavero, presidentea  
Rafael Iturriaga Nieva, bokala  
Enara Venturini Álvarez, bokala  
María Lourdes Muñoa Corral, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK) bilera egin du, goian aipatutakoak elkartuta, 2018ko ekainaren 26an, eta honako txostena eman du Euskadiko Kooperatiben Legearen aurreproiektuari buruz.

### **I. TXOSTENAREN XEDEA ETA LEA/AVC-REN ESKUMENA**

1. LEA/AVC honek jakin duenez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailak Euskadiko Kooperatiben Legearen aurreproiektua egiteko prozedura abiatu du.

2. Legeak erakunde honi lehia sustatzeko ematen dizkion eskumenak erabiliz egin dugu txosten hau. Eskumen horien helburua Euskadiko merkatuetan benetako lehia sustatzea da. Horretarako, zigorrak ez diren neurriak hartzen ditugu, eta, horrelako neurrien esparruan, besteak beste, administrazio publikoekiko harremanak nabarmentzen dira, arau juridikoak proposatzeko eginkizunaren eremuan.

### **II. EUSKADIKO KOOPERATIBEN LEGEAREN AURREPROIEKTUA**

3. Lan eta Justiziako sailburuak 2017ko uztailaren 26an emandako Aginduaren bidez, Euskadiko Kooperatiben Legearen aurreproiektuaren lanketaren inguruko



espedientea abiatu zen. Era berean, 2018ko otsailaren 19ko Aginduaren bidez, Euskadiko Kooperatiben Legearen aurreproiektuari aurretiazko onarpena eman zion.

**4.** Aipatutako legearen aurreproiektuak indarrean dagoen Euskadiko Kooperatiben azaroaren 24ko 4/1993 Legea indargabetuko du<sup>1</sup>, baita Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzko ekainaren 25eko 6/2008 Legearen 3. artikuluko 5. zenbakia ere<sup>2</sup>.

**5.** Legearen aurreproiektuak 4 titulu ditu: I. titulua. Kooperatiba-sozietatea; II. titulua. Xedapen bereziak; III. titulua. Kooperatibak eta administrazioa; IV. titulua. Kooperatiben elkartegintza. Bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bakarra eta bost azken xedapen.

**6.** I. tituluak 11 kapitulu ditu: I. kapitulua. Xedapen orokorrak; II. kapitulua. Kooperatiba eratzea; III. kapitulua. Euskadiko Kooperatiba Erregistroa; IV. kapitulua. Bazkideak; V. kapitulua. Kooperatibako organoak; VI. kapitulua. Araubide ekonomikoa; VII. kapitulua. Sozietatearen dokumentuak eta kontabilitatea; VIII. kapitulua. Estatutu sozialak aldatzea; IX. kapitulua. Kooperatibek bat egitea eta haiek zatitzea; X. kapitulua. Kooperatibak eraldatzea; XI. kapitulua. Kooperatibak desegitea eta likidatzea.

**7.** II. tituluak bi kapitulu ditu. I. kapitulua. Kooperatiba-motak; II. kapitulua. Kooperatiba integratzea eta taldekatzea.

**8.** IV. tituluak bi kapitulu ditu: I. kapitulua. Kooperatiba-elkarteak; II. kapitulua. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua.

### **III. LEHIARI BURUZKO GOGOETAK**

**9.** Legearen aurreproiektuak Euskadiko pertsona juridiko kooperatiboa arautzen du, sorreratik likidatu eta desegin arte. Pertsona juridikoaren organoak, haren barne-funtzionamendua, administrazioa eta araubide ekonomikoa ere arautzen ditu. Horrez gain, kooperatiba motak arautzen ditu, baita kooperatiba-taldekatzeak eta kooperatiba-elkarteak ere. Azkenik, Kooperatiben Goren Kontseilua arautzen du.

<sup>1</sup> 4/1993 Legea, ekainaren 24koa, Euskadiko Kooperatibena, 135. EHAA, 1993ko uztailaren 19koa.

<sup>2</sup> 6/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Euskadiko Kooperatiba Sozietate Txikiei buruzkoa, EHAA, 2008ko uztailaren 4koa.



**10.** Lehiaren ikuspegitik, enpresa-taldeei (141. artikulua) eta kooperatiben arteko lankidetzak-akordioei (142. artikulua) dagokienez egiten duen arauketa kontuan hartu behar da.

Enpresa-taldeen arauketan, aurreproiektuaren 141. artikuluan, xedatzen duenez, edozein mota eta mailatako kooperatibek, elkarren artean edo beste pertsona fisiko edo juridiko pribatu edo publiko batzuekin, edozein motatako sozietateak, elkarteak, taldeak, kontsortzioak eta enpresa-taldeak eratu ahal izango dituzte.

Era berean, 142. artikuluan bitartez, kooperatiben arteko lankidetzak-akordioak arautzen dira eta kooperatibek, beren sozietate-helburuak lortzeko, beste kooperatiba batzuekin lankidetzak-akordioak sinatu ahal izango dituztela zehazten du. Horien ondorioz, kooperatibek eta bertako bazkideek beste kooperatibetan hornidura-eragiketak, produktuen entregak edo zerbitzuak egin ahal izango dituzte.

**11.** Horri dagokionez, kooperatiba formako pertsona juridikoa enpresa bat dela adierazi behar da. Lehiaren arloko zuzenbidearen testuinguruan, enpresa terminoa kontzeptu juridiko zehaztugabea da, baina Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak (EEJA) zehaztu du. Hala, enpresaren kontzeptuak jarduera ekonomiko bat duen edozein entitate barne hartzen du, entitate horren estatutu juridikoa eta finantzatzeko modua dena delakoa izanik ere.<sup>3</sup>

Adierazitako zentzuan, merkatuan ondasunak eta zerbitzuak eskaintzen dituen ekonomiaren edo merkataritzaren arloko jarduera bat egiten duen edozein entitate jotzen da enpresatzat, nahiz eta irabazi asmorik gabekoa izan. Enpresa kontzeptua definitzen duen elementua ez da etekina lortzea, merkatuan ondasun edo zerbitzuak eskaintzen dituen ekonomia-jarduera bat izatea baizik.

**12.** Ildo horretan, kooperatibak Lehia Defendatzeko 15/2007 Legearen (LDL) mende daude eta lege horrek honako jokabide debekatu hauek definitzen ditu: kolusiozko jarrerak (1. artikulua), nagusitasunezko posizioaren abusua (2. artikulua) eta lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzea (3. artikulua).

LDLa pertsona juridiko kooperatiboan zuzenean aplikatzekoa da, eta beraz, bertan finkatutako debekuen mende dago. Hala ere, ez litzateke erredundantea izango legearen aurreproiektuak espresuki jasotzea kooperatibak lehia defendatzeko araudiaren mende daudela. Gainera, horrek segurtasun juridiko handiagoa emango luke.

---

<sup>3</sup> EEJAren Epaia, 1991ko apirilaren 23koa, C-41/90 gaia, Hofner and Elser v. Macroton GmbH.



## IV. GOMENDIOA

**13.** Adierazitakoa aintzat hartuta, Euskadiko Kooperatiben Legearen aurreproiektua izapidetzen ari den sailari honako hau gomendatzen zaio: artikuluetan kooperatibak lehia defendatzeko araudiaren mende daudela jasotzea.